ISPASTER
udala

Espediente zk.:	
Azalpena:	Udal-brigadarentzat ibilgailu elektrikoa erostea

ISPASTERKO UDAL BRIGADARI IBILGAILU GUZTIZ ELEKTRIKO 1 HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Xedea
2. Lizitazio-aurrekontua
3. Bermea
4. Hornitzeko epea
5. Ezaugarri teknikoak
6. Esleitzeko prozedura
7. Esleitzeko irizpideak

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Ispasterko udal brigadarentzat ibilgailu guztiz elektriko bat hornitzea da agiri honen xedea.

2.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Gehieneko lizitazio-aurrekontua da: **26.200 €** BEZa aparte.

Ondorio guztietarako, lizitazioan parte hartzen duten enpresen PROPOSAMENETAN eskaintzaren prezioan ordaindu beharreko gastu guztiak kontuan hartuko dira –Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) izan ezik.

3.- BERMEA

Kontratu honetan berme hauek eskatzen dira:

1. Ibilgailuaren kasuan, gutxienez **5 urte ,edo 100.000 km**.

2. Bateriak, ere, 5 urteko bermea edukiko du, eta 5. urtean 170 kilometroko autonomia mantendu beharko du karga batekin.

3. Halaber, berme-epean eta bermearen xede diren kasuetarako, enpresa esleipendunak ibilgailu elektrikoaren edozein elementu konpondu beharko du gehienez ere 48 orduko epean. Matxurak 48 ordutik gorako aldian erabiltzea eragozten badu, ordezko ibilgailu bat eman beharko du matxura konpontzen den bitartean.

4. Gainera, berme-aldian, enpresa esleipendunak ibilgailurako beharrezkoak diren ordezko elementuak hornitu beharko ditu.

4.- HORNITZEKO EPEA

Ibilgailu elektrikoa entregatzeko 90 eguneko epea izango da gehienez, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.
Autoa udalak adierazten duen lekuan emango da.
Ibilgailua eta haren elementuak arauzko kontrol eta ikuskapen tekniko guztiak gainditu ondoren entregatu beharko dira, legezko mugarik gabe zirkulatu ahal izan dezan.
Udalak matrikulatutako eta dokumentazio guztia behar bezala duen ibilgailua jasoko du, dotazioaren homologazioak barne.
Ibilgailua mantentze lanen eskuliburuarekin eta berme-ziurtagiriarekin batera entregatuko da. Ibilgailuaren harrera-akta sinatuko da, eta alkateak sinatu beharko du.

5.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

a.- IBILGAILUA

Ibilgailu kopurua: 1.

Mota eta ezaugarriak
Furgoia, 2 plaza eta 4 aterekin.
Trakzioa guztiz elektrikoa.
Txuria.

Motorra eta prestazioak:
Motor elektrikoa.
Gutxieneko potentzia, 44 Kw edo gehiago.

Bateriaren ezaugarriak
Bateriak saretik kargatzeko kable estandarra.
Gaitasuna: 22kWh edo gehiago.
Autonomia km-tan, 170 km edo gehiago.

Ibilgailuaren beste ezaugarri batzuk:
Neguko gurpilak
Segurtasuna: airbaga pilotuarentzat
ABS segurtasun-sistema (edo antzekoak)
Klimatizadorea edo aire egokitua
Esku libre sistena: Bluetooth
Atoi-krokadura
Ontziko taula, energia-adierazlearekin.
Karga erabilgarria: 600 kg.

Osagarria:
Txapazko manpara osoa, gidatze postuko karga espazioa erabat isolatuz.
Atzeko ate asimetrikoak, txapazkoak.
Eskuineko alboko ate irristakorra txapan.
Altzairuzko baka (100 kg ingururentzat)

6.- ESLEIPEN-PROZEDURA

Eskumeneko kontratazio-organoaren eskutik esleituko da kontratua, lehiaketa publikoaren bitartez.

7.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Hornidura esleitzeko, irizpide ekonomikoaz gain ibilgailuaren hobekuntza teknikoak hartuko dira kontuan, baita ingurumenarekin zerikusia duten hobekuntzak eta udal brigadaren zerbitzua hobetuko lituzkeenak ere.

Beraz, lizitazioan puntuazioa banatzeko honako baremo hau erabiliko da.

KONTZEPTUA	PUNTUAK	SOBREA
Proposamen ekonomikoa	70	C
Hobekuntzak ingurumen-portaeran	10	B
Hobekuntza teknikoak	10	B
Laguntzak izapidetzea	10	B

<u>1.-Proposamen ekonomikoa, 70 puntu gehienez.</u>

Proposamen ekonomikoari –eskainiko hobekuntzak eta zerga guztiak barne, BEZa ezik –dagozkion 70 puntuak formula honen bidez banatuko dira:

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).

P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

Pmin = Pmax x (1-Bmax)

(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Eskaintza alternatiboak baleude –hau da, aurrekontua aldatzen dutenak eta baztertzekotzat hartzen ez direnak–, aurrekontu alternatiboaren arabera kalkulatuko da bajaren ehunekoa, eta zenbaki horrekin sartuko da oinarri-eskaintzentzako puntu-banaketan, baldin eta aurrekontu alternatiboa lizitazioaren aurrekontua baino txikiagoa bada. Aurrekontu alternatiboak lizitazioaren aurrekontua gainditzen badu, lizitazio motaren arabera egindako eskaintza ekonomikoari dagokion bajarekin sartuko da puntu-banaketan. Oinarri-eskaintzen baja maximoa gainditzen duten aurrekontu alternatiboek puntuazio maximoa jasoko dute.

Hasiera batean, **neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, % 10 baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaile guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

2.- proposamen teknikoa, gehienez 30 puntu.

2.1. Ingurugiroarekiko hobekuntza teknikoak (10):

- Bizi-zikloaren analisia egin zaion ibilgailu eredua (ISO 14044 arauaren edo baliokidearen arabera). Zein den adierazi beharko da): 6 puntu.
- Gainazaleko tratamenduak, substantzia toxikorik edo metal astunik gabekoak erabiltzea.2 puntu.
- Berotegi efektuko efekturik gabeko gasak hozteko erabilera. 2 puntu.

2.2. Beste hobekuntza teknikoak (10):

- Plegu teknikoan eskatutakoak baino berme urte bakoitzeko edo 20.000 km bakoitzeko gehiago: 2 puntu. 5 puntu, gehienez.
- Gidatzen laguntzeko neurriak (gehienez 5 puntu): aldapetan atxikitzea, atzeko aparkaleku-kamera, haizetakogarbigailua eta argiztapen automatikoa, nabigatzailea: puntu 1 bakoitzeko.

2.3 Laguntzak izapidetzea: 10 puntu

MOVES III eta bestelako laguntzak eskaintzaileak zuzenean izapidetzeagatik: 10 puntu

Irizpide espezifikoak, berdinketak desegiteko SPK Legeko 147.2 artikuluan ezarritakoak.

Enpresa esleipendunak hornidura hobetu ahal izango du kostu berarekin, baldintza berekin eta eskainitakoaren marka eta modelo bereko ibilgailu batekin.